

Galdekizunak: Ze eritzi duzu lezori buruz?

Zernolako jendea da bertakoa?

Ze hutsune nabari duzu lezo herrian?

D. Ramon Azkonobieta, apezia, 75 urte

Nire ustez herri honek jasan duen aldaketarik nabarmena hau da: atzerritarrez bete izatea eta asko nahastu dela, bi puskatan ardibitu arte. Kanpotarren eta bertakoen artean ez dago ia harremanik.

Gertaera honek beherakada bat ekarri du erlijiotasunaren alorrean. Atzerritarren artean krisi hau nabariagoa da, beren jaioterria uzterakoan sustrairik gabe gelditu bait dira eta, batik bat, erlijio sustrai gabe. Bainan bertakoen sinesmena ere ahuldu egin da.

Imanol Garmendia, ikaslea, 18 urte

Ba, ez dakit zer esan edo nondik hasi. Gazteoi dagokigunez esango nuke ez dagoela ezer guretzat. Eta hemen girorik aurkitzen ez dugunez gero, Errenteria aldera jo beharra dadukagu: zinera, e.a.

Gainontzean, ez dut inongo problemarik ikusten harremnatarako, gazteon artean behinik behin. Ezta adinekoen artean, nire eritzirako. Hemengo jendea nahiko irekia da.

Joakin García, langabea, 21 urte

Oso gaizki dago herri hau. Ez dago jolaslekurik, ez bolalekurik, ezta zinemalekurik ere. Gure irtenbidea Errenteriara joatea da.

Gazteok, eta bai adinekoak ere, ondo konpontzen gara.

Joxe Mari Altzaguiren, garratxo-laguntzailea, 17 urte

Herri aspergarria da Lezo. Jende gutxi ikusiko duzu hemen jaiegunetan.

Gazteok gure artean ondo moldatzen gara. Adinekoek, ordea, nahiko azpijoko eta masiaketa badarabilkete.

Herri honetan, gainera, ez dute funtzionatzen ezta zerbitzu minimo batzuek ere, bibliotekak adibidez.

Anakel Kuesta, untzigintzako arduraduna, 30 urte

Lezoko jendea gaiztoa da eta "alua". Ez zegok elkartasunik gazteen ez zaharren artean. Lagunkidetasun izpirik ere ez. Honezaz gain, ez diat ikusten ezer egiteko gogorik inorenengan.

Beharrezkotzat jotzen ditudan gauzak hauek dituk: polikiroldegia, parkea, e.a.

Luisfer Salaberria, tabernaria, 23 urte

Lezoko herriaz inpresio kaskarra zeukeat. Jendea arra7 roa duk eta estrainioa.

Herrian ez duk ia ezertxo ere egiten, ez kultur ekintza rik, ez...

Dena den, zahar eta gazteen arteko harremanak onak di-rela esango niake.



Jose Luis Egia, udaltzaina, 32 urte

Herri kontularia duk hau.

Gauzarik baikorra bezala, niretzat, herri honek oraindik ez duela bere euskal nortasuna galdu.

Guztiz premiazkoak dituk, nire ustez, polikiroldegia, kultur etxea eta musik kontserbategia. Gehiegi daudenak tabernak dituk.

Duela bospasei urtetik honantz konfliktibo bilakatzen ari duk lezo, batez ere gazte arloan. Ezertxo ere ez bait zeukatek.



Ramontxo Aiarza, garraiolaria, 23 urte

Zero bat da lezo. Ez dago deus ere hemen.

Jendea taldetan sakabanaturik dabil. Beren arteko harremanak halamoduzkoak dira, politika sailean sartzen ez den bitartean.

Jendea biltzeko leku estalirik ez dago: polikiroldegi bat edo. Ez dago ere haurrentzako parkerik ez zinemalekurik. Idi dema leku bat eta Altamirako parkea... horiek bai baditugu, bai nan noiz behinka bakarrik erabiltzekoak dira.



Jose Luis Erixe, langabea, 30 urte

Herria bizileku bezala oso ongi dago. Kirol eta kultur arloan, ordea, gaizki aurkitzen da. Kirol mailan, esate baterako, kanpora joan beharra dadukate jolastu nahi dutenek.

Jendea, gehienbat, alua da. Gauza guztietaz kanpetik eta konprometitu gabe enteratu nahi da. Hau da, ezer lortzeko beste batzuek mugitu behar dute.

Denetatik falta da herri honetan: semaforoak... Estolde-ria eta osasun zerbitzuak (higiene...) utziak daude.

Zenbait egitura ez da ezertarako erabiltzen, adibidez Altamirako parkea, drogazaleen zereginetarako ez bada.

